

Fobiak.mp3

"Egun on. Nik ez daukat inongo fobiarik, baina nire mutil-lagunak duena kontatu nahi dizuet. Izan ere, trenean eta autobusean ibiltzeak beldurra ematen dio eta arazoak ditu batetik bestera mugitzeko. Leku itxiei beldur ikaragarria die eta igogailuan ere ezin da ibili. Irakurri dugu gertatzen zaiona esperientzia traumatikoren baten ondorioz izan daitekeela, baina ez dakigu nora jo arazoa konpontzeko. Mila esker."

"Nik txikitatik dudan beldurrari buruzko informazioa nahi nuke. Altuerari diot beldur izugarria. Ez naiz gauza balkoi batera hurbiltzeko; izugarrizko bertigoa sentitzen dut. Merkataritza-gune handietan eskailera elektrikoetan ibiltzeak ere beldurra ematen dit; zorabioa eta dardarizoa sentitzen ditut. Oso gaizki pasatzen dut, eta, gainera, beldur horrek erabat mugatzen dit bitzta. Zer dela eta daukat fobia hori? Eskerrik asko."